



ZERUKO ARGIA

ILLEROKO ALDIZKINGI EDERGARRIDUNA

AITA KAPUTXINOAK ZUZENDUA

IV Urtea

1922'ko

Oñila

41 Zenbakia

Kristauen Pazkoak



AZKOA zer deitzen degu? Jesukristo'ren ilen artetik piztutzearen urte betetzeari.

Jesukristok oso menderaturik utzi zituan inpernuko deabruak; garaitza onen koroia bezala izan zan Jesus ilen artetik Piztuera: Elizak joréxegatik egiten ditu Pazko eguneko jaiak.

Pazko egun auetan Elizaren biotza betetzen duan poz ta alaitasunari lagundu egin bear al diogu?

Bai Jesus'n Piztueraren jaia, urtebetetzea ez ezik, munduaren azkenean izan bear degun piztueraren jaia da ta Liburu santuak Jesukristo gure jauna *primitiae dormientium*, ilen artetik piztutako lenengoa deitzen dute, ta, bera piztu zalako guk ere, piztu egin bear degula ba-dakigu; gañerakoan gure beti bizi naia etzan beteko. Ala bada, Jesus'en Piztuerak, gero beñiz ez iltzeko noizbait piztuko gerala argi adierazten digu.

Bafia, gure gorputzak gero piztutzea guk irabazteko gure animak, pekatuko eriotzatik irtenaz, esker edo graziazko bizitzara piztu egin bear du. Gure baruko piztuera au lenengo aldiz Bataio Deunaren bitartez egin da, ta Bataioan artutako esker edo grazia pekatuaz galdu dutenen animetan, aitorpen edo konfesioaren bitartez egiten da.

Gure bizitzarako zer erakusten al digute Pazkoetako Jaiak?

Pablo Apostolu Santuak itz gutxitan adierazten digu Eliza ama deunak Eliz-erezuatan egunero esaten dituan itz auetan: *Jesukristorekin piztu ba zerate, Jesukristo Aitaren eskubian exeririk dagoan gñi a'e-*

tako gauzak billatu itzazute, zeruko gauzak gozartu itzazute, ez ordea lurrekoak.

¡Zer erakutsi edeñak sarturik dauden ain itz gutxietan! *Jesukristorekin bizi ba zerate*, Jesukristorekin nor piztutzen al dira? Batayatuak gera guziok, Bataioaren bitartez pekatuzko bizitzarako il egiten gera ta pekatutarako ilaz esker edo grazia irixten degu, zeruan oso ta beteago egingo dan bizitza atzematen degu? Ala ba, batayatuak izan gera, Jesukristorekin piztu gera beraz. Jesukristorekin piztu ba gera, nolakoa izan bear al du gure bizitzak? *Goiko gauzak billatu itzazute*; esan nai det zeruko gauzak, egiazko Eñiari dagokion guzia, zeruari dagokion guzia; bere garaitza gozatuaz antxe dago Jesukristo gure Eroslea, gure Burua, gure Eñekea, gure bizi guzian mendeko onak izango gñela zin egin gñion Eñekea.

Zeruko gauzak gozatu itzazute; Ez degu bilatze utsarekin ase bear, baizik maite egin bear ditugu ta oiek irixteko eññalak egin bear ditugu ta, iritxi ondoan, gozatu egin bear ditugu. *Ez ditzagun lurreko gauzak billatu*, berak gure animari Jesukristo gure Jaunak ainbeste nekeen bidez eman zion graziazko bizitza kendu egingo diote ta. Baño jai ene! Pablo Apostolu Santuak agindu zigun bezela ez bizi gaurko eguneko kristauak! Zeruko gauzik ez balitz bezela bere animatik goiko gauzen zaletasuna oso ayenaturik, lurreko gauzen atzetik dabilta. Lurreko gauzen zaletasuna, lurreko atseññen zaletasunak gure animatik aldendu dute.

Esan bezate bestela, bere gorputzak Espiritu Santuaren etxeak dirala azturik gaurko nabarmenakin, ainbeste pekatutarako bide ematen duten emakumeak; ¿zer bilatzen ote dute? Ez animaren gauzak, baizik aragiarenak. Zine ta antzoki edo teatro gaiztoetara dijuazen gizon talde aundiak ere esan bezate; ¿zer bilatzen dute? Ez zeruko gauzak, baizik lurrekoak. Auek ez ditezte Jesukristorekin bizi, naiz ta arekin lenago piztuak izan, animaren bizitza ezpaita zikinkeriarekin bazkatzen, baizik zeruko jatekoakin. Auek guziok gogoan artu bitzate Pablo Apostoluaren itz auek: (Galazia'koai egindako eskutitz edo karta, IV burua). *Ez gero olakorik uste izan. Jaungoikoari ez dezakio inortxok parrik egin. Gizonak zer erain, ura bilduko du. Aragiarentzat ereiten duanak eriotza ta ustelkeria bilduko du. Gure bizi ta usteldu eziñaren baitura dan Jesukristoren Piztuerak, oriei ez die onik egingo.*

Tudela'tar Karlos A. O. M. Cap!

(Atzarik itzulua)





Arros eder,
Arros garbi,
Arros berri, arantz gabea
Jainko eskerren arrosa,
Arros mardul, lorez belea
O Birjiña Zu zera
Jesus'en Ama mailea.



BETIKO BIZITZA

Credo vitam oeternam. Amen.

Symb. Apost.

Sinisten dut betiko bizitza. Ala biz.



UR begi beltz, begiratu zofozdun bati galdetzen nion bein:—noiz arte bizi nai duzu, aupa? ta erantzun zidan:—betiko, jauna.—Nola biziko zera, ordea, betiko?—Zerura joanez jauna.—Ederki, aupa, ederki erantzun didazu.

Aufak eta edozein gizonek bere biotzean darama betiko bizitzeko gogoia. Eta kristauak bere biotzean ezafirik darama ortaz gainera zeruan betiko zorionez beterik bizitzeko ustea ta asmoa.

Ara bada kristau guziok aitortzen dugun egi pozkari au: *sinisten dut betiko bizitza.*

Betiko bizitza ofek zer esan nai du?

—Betikotasun guzian, edo berdin dana, gauarik gabeko egunetan, azkenik gabeko urtetan, beti-betiko bizitza izango dugula, gure gorputz berarekin gure anima azken-egunean bildu ezkerok.

—Betiko bizitza ori non izango degu?

—Bakoitzak berak irabazitako lekuan, onak zeruan eta gaiztoak inpernau.

—Zerua bezala inpernua, biak al dira betikoak?

—Bai jauna, biak dira betikoak, biak azken gabekoak, biak ezin luzekoak. «Eta joango dira aukeratuak betiko nekera ta zuzenak betiko bizitzara, dio, Jesus'ek (Matth. XXV-46).

Emen Jesus'ek *betikoak* berdin deitzen ditu gaiztoen *nekea* ta onen *bizitza*. Ta onenari bakarrik deitzen dio bizitza ebanjelio guzian, gaiztoen nekezko egonera naiz betikoa izan, bizitza baño obeki deitu ditekela eriotza. Emen norpait gaitz eta min aundietan dagoenean ere esaten bai-dugu: au ezta bizitzea.

Betiko bizitza deitzen zaio zerukoari, ango bizitzak berak bezala, ango gauza zoriongarri guziak betiko iraungo diotelako. Lufeko atsegin, poza ta gozagai guziak aldi batekoak besterik ez dira; guziak dira aldakofak, zarkor eta galkofak; gure soñekoak bezala, lufeko gauza guziak zartu, aldatu ta ezereztu egiten dira. Ez ala zerukoak; ango atsegingai ta gozagai guziak beti befi, beti guri, beti berdin iraungo diotenak dira. Argatik beren bizitza zoriontsua da gozotasun osozkoa, beñere gutxitu, zartu edo galdu egiteko bildurik gabekoa dalako.

Zerua zer ote da?

Aingeru ta gizonak Joungeikoagana iritxi: ik, artaz zorionik bizienaz, lufean ezin bezala, gozatzen diran *biziera* ta *tokia*.

Zer biziera da zerukoana, edo nolako atsegingarria beraiena?—Ezin dugu ori gure ezagura laburaz aditu ta ezagutzea erditxi, lufeko gauzakin ikustekorik gabekoak diralako zerukoak, ain aundia da batzuen eta besteen tartea.

Zerua zer da? galdetzen zion Tomas deunari bere afebak eta erantzun zion anaiak: zeruratzen geranean esan al izango dizut zer dan zerua.

Gaitz edo miñik ez da; on guziak an dira.

Apokalipsis'ko liburuan Juan deunak dio: ez dute goserik, ezta ere egafirrik geiago izango, ez da eguzkia aien gañera eroriko ezta bero tzafik ere. Eta gero: Jaungoikoak txukatuko du beren begietatik negafa afunt; eta ez da geiago eriotzarik; ez zotiñik, kañaxirik, ezta miñik ere, ezta izango gaugero, lengoak joan ziran-eta.»

«Zer atsegiña ta pozaren aundia, Jaungoikoa ikustera sartua izatea, Kristo Jaun zure Jaungoikoarekin betiko osasunezko ta argitasunezko atsegiña artzera goratua izatea; patriarka edo leen-aita guzai, Apostolui eta Igarleai eta Martirei itzegitea, onakin eta Jaungoikoaren adiskideakin zeruetako efeinoan eriotzik gabeko atsegiñez poztutzea, an artzea begiak ikusi ez duana, belafiak entzun ez duana eta gizonaren biotzak uste izan ez duana. Zipriano Santuak, (Epist. LVI, ad Thibarit, 10). Zezilia deuna! beaf zuan boferoa efukiturik zegoan deun ontaz eta santuak esaten dio: «Jesukristo'rengatik iltzea, loiaren ordeztu ufea, txabolaren ordeztu jauregia ta autsaren ordeztu efegalkia trukatzeta bezela da.»

Ori da zeruko zorionaren azala edo gañekoa, goazen mamira.

Zeruko atsegin eta zorionaren iturburua.

Bein zerura ezkeroz gure animak gogoak ikasi-al guzia ez du eragozpenik izango gorputzaren aldetik. Gure ezaguera edo adimena argitasunaz beterik arkituko da, ba, emen ezagutu edo aditu ezin asko argi-argi aditzeko. Gure gorputzeko begiak berak *zoriontsuen argia* esaten zaionaz argituak izango dira, lufean ikusi eziñak ederki ikusteko. Orain ezin degu ikusi Jaungoikoa, orduan ordeza arpegi-arpegi ikusiko degu. Pablo deunak zion: orain xipiluz, itxuretan (berak egindakoan bidez) ikusten dugu, orduan ordeza aurpegiz aurpegi: Orain zerpait besterik ez dut ezagutzen, orduan ordeza ni ezagutua naizen bezela ezagutuko dut; (I. Cor. XIII-12) esan nai du, Jaun-

goikoak ni ezagutzen nauen bezela ezagutuko dut. Juan deunak dio: bere antzekoak izango gera, dan bezala ikusiko degulako. (S. Joan. III).

Job santuak bere miñik eta naigaberik aundienetan zion: Nik ba-dakit nere Erostañalea bizi dala ta azken azkeneko egunean lufetik birpiztuko naitzela ta nere gorputzez nere Jaungoiko Zeruratzalea ikusiko dutela; nik neronek ikusiko dut eta ez bestek neregatik eta nere begiak ikusiko dute. Nere baitan daramat uste au, (Job. XIX-25-27)

Gure Jaungoikoa ikustean eta etzagutzean, ezagutuz maitatzean, maitatuz betiko berekin idukitzean eta berekin idukiz artaz gozatzean, joango zaiote betikotasun guzia zorionekoai.


Zeruan guziak zorion berdiña izango al dute?

Guzien zorion gaia berdiña izango da; au da, atsegingai berak izango dituzte; baño ez zorion edo atsegintasun berdiñak.

«Bakoitzari berak egindakoen araura emango diote» dio Jesus'ek ebanjelioan (Matt.-XVI-27)

«Nere Aitaren etxean gela asko da» (Joan-XIV-2) «Bakoitzak bere saria artuko du, bere lanaren ariora (I Cor., III-8) Bata da eguzkiaren argitasuna, bestea ilargiarena ta bestea izafena. Eta izafa ere izafatik bereizten da bere argitasunean: Beronelaxe ilen birpiztean» (I Cor. XV-4) Onela guzien zoriona izango da aundia, baño aundiagoa geiago egin duten aiena.

Intza'r An. O. M. Cap.





O FILII ET FILIAE

Poztu zaitez jo kristaua! «Jesus piztu da» aditzean
 Goiko Efege aintzatsua Toma'k siñetsi etzuan
 Gaur iñetatik piztu da. Ta zalantzan gelditu zan.
 Iru emakume dira «Ikusi, Tomas, sayetsa,
 Joan Jesus'en obira Ikusi nere esku-oñak
 Aren gorputza igoriztera. Ta ez izan siñeskaitza.
 Madelenak befi eman Esku, oin, sayets zaurtuak
 Ta iñobiaren atera Ikusi ta dio Toma'k:
 Bi ikasle doaz lasterka. «Zu zera ene Jainkoa.»
 Baña Joan Bidalia Zoriontsu ikusi ez ta
 Pedro baño len eldu da Sendo siñetsi dutenak:
 Lasterago ibili baita. Betiko biziko dira.
 Aingeru zuriz jantziak Pazko-jai pozkoñ oetan
 Esan die emakumeai Entzun bitez poz-oyuak:
 Jesus Jauna piztu dala. Goretsi dezagun Jauna.
 Ikaslen erdian Jauna Jaunari zoñ diozkagun
 Agertu zan, zioñtela: Eskeñ apal gogotsuak
 «Pakea zuekin dela.» Itzuli ditzayozkagun.

Urtsuya O. M. Cap.

Alleluya






Goizeko-izara



(Elduain'dar Toma Abak ereskidetua)

Geldi-Geldi





LOREAK ETA LUMAK



ANUEN ama bat, amatxo maitea, amatxo maitatia, amatxo oso kristaua, bere begiko ninia baño geiago zaitzen ninduana, ontasun eraiko bidea bere bizieraz erakusten zidana, gaztetxoa nintzanean ni zuzentzeko alegiñak egiten zituana, musuz, palakuz ta maitetasunez betetzen ninduana. A! zein utsune aundia utzi zuan nere biotzean zerura juateko utzi ninduanean!

Baño Jaunak bi Ama guri eman. ¡Au poza! Ta luferko ama kutuna baño maitagafiagoa zerukoa. Zoazte loretegieta; begiratu liliari, bere txorten luzearen gañean dagon lore zuria, begira zein edera dan, bere usaia bai goxoa dala. Zergatik ez luke lufer guzia bañena bere usai goxoa zabaltzen ibili bea? Luferan sustraiak josia daukate; inguruko erletxoak lore-mimikoan sarturik bere atzeko ankatxoak irin oriz bete ta alai juaten dira bere erletokira.

Gure Ama Maria lilia da; baño bere gisako lilia.

Lilia bezela txuri garbia da. Liliaren bafura erleak bezela, kristauak Mariagana juan oi dira beren animen santutasuna egiteko bea duten irin oria eske, grazi ta laguntza eske,

Gure Ama maitatiaren eskuetan utzi du Jesukristo gure Jaunak guretzat irabazi zuan guzia; bera da Jaungoiko gure Jaunaren eskei edo grazien gordailua; berak, eder zaion bezela, banatzen ditu ta ontarako txit esku zabala da.

Ontaz gañera gure Amatzat Jaunak gurutzetik emana.

Beraz, ezta afitzeko euskaldunak ilabete ontan Mariari biotzeko ta loretegietakor lorerik edereñaz gure Amaren aldaretara juatea.

¡Euskal idazleak! Ez al litzeke guk ere loretxo bat eskeintzea on izango? Euskal-idazleak, geien geienak beintzat, gauz onak idazten dituzte; baita ere izkirimiak ta irudi pañagariak ere. Txarrik ez diran gauza guziak Jauna ezagutu ta maitatzeko ta maitatzeko laguntzen dute paper onetan agertzen diranean.

¿Zergatik?

Paperetan argitaratzen diran gauza pañagari ta mamigabeak berberak, aldizkingi edo periodikua atsegiñagoa ta irakurgariagoa egiten dute, ola aldizkingia geiago bañeatzen da ta zenbat geiago zabaldu, jakiña, on geiago egiten duala.

Ona dan guzia Jaunari ta Ama birjiñari eskeñi dezakiogu.

¿Euskal idazlearen luma ez al da gauza ona?

Berak eusten dio Erlizioari, Euskaleñari ta euskerari.

Gauz onak irakurtzen dituanak ondo bizitzen ikasten du.

Ondo idazten duanak ondo bizitzen erakusten du, Jauna ezagurazi ta maitaazten du, anima ta gorputzeko afiskuetatik alde egiten erakusten du. Itz batean Jaungoikoaren aintza edo gloria ta gizonen zoriona irixten laguntzen du.

Ta au Mariari ezin atsegiñago zaio. Bi gauz oiek dira Mariak geien nai dituanak. Beraz oso atsegin izango zaizkio euskal-idazleen lumak berak baitira Jaungoikoaren aldeko egiak paperean ezartzen dituztenak.

Ez al lireke oso lore atsegiñak izango Mariarentzat euskal-idazleen lumak!

Nik uste baietz.

Ta gure lumak Mariak bedeinkatuak izan ezkeror, ez al luteke on askoz geiago egingo?

Ez al lituzteke geiago ikutuko gizonen irakurleen biotzak?

Eskeñi ditzaiozun gure Amari gure lumak.

Erletxoak bezela guazen Mariagana gure lumak jakinduriz, garbitasunez, maitetasunez betetzera

Arbelaitz O. M. Cap.





Ama Mariari



(Ligorio'tar Alfonso M.^a Santuarena)

Ba aldakizu nik zer
Nai dedan, Maria?
Maitatu nai zaitut,
Amatxo eztia.

Zure ondo-ondoan
Nai det egon beti;
Eregiña ona,
Ez nazazu iraitzi.

Ta zuk, Ama gozo,
Lili taxa, esan;
Esan zer nai dezun
Eskain dizazudan.

Beste emaitzik eztet,
Torizu biotza;
Auxe ematen dizut
Maitasun-emitza.

Baña au zuk aspaldi
Ebatsi zenidan,
Zuk ura eta ark zu
Alkar maitatzean.

Oi Ama laztana!
Ez nazazula utzi;
Zeruratu arte
Ni zaindu ta eutsi.

(*Italiaratik euskeratua*)

I'tar Pol. A. O. M. Cap.



EZKONTZEKO PRESTAERA

X

Erljio-gabebo Ezkontzak

§ I



JOXEPA MAITEA: Zure eskutitz edo karta gozo ta mami-tsua zan gero. Neskatz kristau bat erlijio gabeko gizonarekin ezkondu al diteken? Gai ori ez ikutu ta ezkondu ondoraño ez ikutzea obe ote dan? Zer egin bea' duan katolikoa bezala bizi ez danak emaztetzat eskatzen badu? Baño nexka, zergatik sartzen olako gauz sakonetan? Zer nai al dezuz, nere eramapen (pazientzia) norañoakoa dan ikusi, ala neskatz kas-kariñak pa'aga'fi utzi nai al dituzu?

Galdera oiek zure burutik atera al dira, ez al dizkitzuz lengo eguneko zure adixkideak gogorazi? Dana dala oraintxe azaltzera nua zure galdera za'ak.

Aditu ondo. Len-lena ezkontza sakramentua da; ezta nolanaiko elizkizun bat, baizik gure erlijioak dituan gauza santuenetako bat: ta ain gauz santua bada, esan zeofek ea sakramentuak ematen duan grazia galduko duan gizon siñismen gabearekin, ezkondu diteken?

Kristau ezkontzak ez ditu bi bizitza bakafik batutzen; baita biotzak ere ontarako duan inda'ra ta graziaz; ta grazi ontatik zerbait galtzen da ta biotzak ez dira egiazki batutzen, biak Jaungoiko zaletasunean ezpadira berdiñak ta biak pekatu lafirik gabe ta Jaunaren adiskidantzan bizi ezpadira.

Ez da naikoa sena'gaia erlijioaren etsai ez izatea, ta bere emazte izango danari sakramentuak maiz (sa'itan) artzea, ez galeraztea; au ez da naikoa; berak gutxienez Elizak agintzen duanean pekatuak aitortu ta Jauna artu bea' du; au egiten ez duana pekatuan dago, inpernuruntz dihua ta an eroriko da.

Olako gizonarekin bizitza atsegin izango litzaizuke? A! Neskatz egiazki elizkoia ta ezkontzan zoriontsu izan nai duana ez da ezkonduko; kristau on ta Jainkoaren bildufeko ta onen Legea gordetzen duanarekin bakafik ezkonduko da.

Jaunaren Legea gordetzen ez duan gaztea ez diteke izan ez sena' ona ezta aita ona ere, kristauak aditzen degun bezalakoa beintzat, ofetxegatik onelakoren batek zure eskua eskatzen ba'du, zer egin bea' dezun adieraziko dizut.

Ezkondu-aufeko izketak benaz asi baño len, katoliko bezela bizi dedi'la eskatu zaiozu: au da, kristauak jakin bea' duana ezpadaki, ikasi dezala; Jaunagandik ufuti bizi izan dan aldiko pekatuak aitortu ta Jauna artu dezala; ta gero al duan bezin maiz au bera egin dezala.

Au gutxienez ta len-lenik eskatu egin beař dezū ta ezpadu au egin nai, pikutara, ala-txanpaña, bota zazu; zu bezelako gazte elizkoi batek ez du inola efe artu beař familiaren ointzat, erlijio gabetasuna ta deunauste edo sakrilegioa jaři nai duan gizonik.

Ta deunauste edo sakrilegio ikaragafia da pekatu lařian ezkontzea; erlijio-gabetasunezko pekatua da gatzetako utsak aitortu gabe bizikide beřiau artzea.


Ta ořa zure galderari ematen diodan erantzupena: ezkondu bařo len ezezik, ezkondu auřeko alkar-izketak benaz asi bařo len, erlijio-gauzak ikutu beař dira.

Lenbizian iya gauz ziuřa da garaituko duzula, bařo gero beřiz ziuř aski garaitu egingo zaitu.

Lenbizi-lenbizian Elizaren legeak betetzen ez dituanari zure eskua, ta biotza ez dizkiozula emango argi ta garbi esaiozu. Ta dizun maitetasuna ezagutzera emateko, San Jose'ren zazpi igandeak egin ditzala, ondo pekatuak aitortu ta Jauna artu dezala ta Jaunaren adiskidantzan jaři dedila eskatu zaiozu; esan zaiozu au guzia Jaungoikoak bien arteko maitetasuna bedeinkatu dezan egin dezala; ziuř (seguru) aski artara mugituko dezu ta berez ona ta zint. oa izan ařen, ozturik daukan siřismena piztuko dezu.

Ain gauza deuna ezpadu egin nai, kukurbitak edo kalabazak eman, etzaitu merezi-ta; ta atsegiř ori ematen badizu zuen izketa edo tratuā Pamili Santuarien babesean asiko da ta zoriontsu izateko asko auferatu izango dezu.

Zuk aitatzen ziniřun erlijio gabeko gazteak iru motakoak dirala esan dezakegu. Lenengoak dira bere siřesmen edo fedea ezer galdu gabe, sakramentuetatik alde egin, bere oiturak garbi gordetzen ez jakin ta utsegite batzuetan gaiztakeriz bařo geiago, auleriz erori egin diranak. Bigařenak dira erlijioaren etsaiak, bařo ajalagabeko gauzari bezelatsu begiratzen diote, andre-gauzari bezela ta erlijioak agintzen duana gaiztakeriz bařo geiago utzikeriz ez dute egiten. Irugařen malan siřismenik gabeak, egiaz erlijio gabeak diranak jařiko ditut: oiek berez erlijio katolikoari alako ezin ikusi bat, ala egiazko gořtoa diote.



Anbrosio anaia.



“Anatxuriko amona”

—HCHO—

(Umeentzat)



MONA gozo paketsurik sortu izan bada euskalefiko basefietan *Anatxuri*'ko *Juana Mari* izan da noski.

Bakafik ilunabafian, eziñegon apurtxo bat gorputzian sartzen zitzaien: eñesumindu xamaña egoten zan garai artan: oju bati ta mokoka besteari amur ematen etzun bere bi ilobatxoak aurfeko aldean ikusi arte. Orduan, bai, patxaran exeriko zan su ondoan ta ardazketan asire bai, betaufekoak suduraren mutufean ipiñita.

Ardazkile trebea zan *Juana Mari*, ta auzoko atxoan artean irulari alaiena: baita ere itzontziena.

Mutilek, ura sermoia gau batez ilobatxoei egin ziena!. Oroitzen naiz beste gauzen artean esan ziela.

Gauza txafak lagun gaiztoekin ibilita ikasten dira, *Malentxu*. Ene, nolako algarak inpernuko etsaiarenak, neskati on bat gaiztoarekin jostaketan ikusten duanian. Lagun gaiztoak, ikatzak eskuak bezela, neskati onaren anima zikintzen du.

Zuen lagunak gauza itxusiak esan edo egiten dituztela entzuten badezute, aldegin lagun ofengandik biotzatxoa zikindu nai ezpadezute.

Goguan artu gero, *Ixabeltxo*. *Poñoko*-neko neska koxkor orixe, ezta-ki gero nolakoa ote den.. itz lasaixkoak esaten ditu..

Maite oiek, on-onak izango zerate..?—Bai andrea, bai—erantzun zioten amonari *Malen* ta *Ixabelek*.

Tira ba Agurtza (Eñosarioa) asi *Malen*....

Ikusgaria zen nola moldatu ziran amona-ilobatxoek Agurtza esateko. Bitartian *Anatxuriko* etxekoandre gaztia auri lo afaratzitzen ikusi nuan. Agurtza bukatu ala, aferi ere *Juana Mari* zer bait esan bea izan zion:

Badaramazu seaskatxora zerutik erori zaigun aingerutxo ori?

Zu ere nere besoetan olaxen ibilia zera, Jaunak daki nolako afitarekin. Bere ondoan daraman aingeru zaitzailea bezin edef-polita da bai gure *Joxe Inaxio*. Jesus maitiak zenbat maite ote du gero gaxo ori? Beretzat azi bea dituzu efugabe oiek... Baztef guzietan ondatu nai ditu etxaiak Jesusen kufunak... Eztedila, gero, *Antekristo* etxe ontan besteetan bezela sartu.

Ikusten dituzu *Txomiñeneko* umeak?.. Gona motz oiek Antikriston legekoak ez ote dira gero?..

Zuk beintzat Jaunak eman dizkitzun alabatxoak, txukun bañan egoki

jantzi. Belaunetatik goragoko gonak alabei jantzitzia lizunkerirako bidea be-
roei erakustia da..

Zoaz, zoaz, utzi zazu seaskatxoan ume gaxoa ta esaiozu Ama Birjiñari
beti bezela:

Ama, Ama, ona emen zure aurtxoan gorde zazu, gorde beti....

Anatxuriko Juana Mari'ren antzako amonak izango ote dira beti eus-
kaldunen artean!

Oyartzuna O. M. Cap.

GUERE ERIA

Basetxe zuri
alayak an-of
muño ta ibar zabaleran,
an-of lafean
etzanda dauden
arkume zurien eran;

mendi goi-goyan
laño-tarfean
afizko artzai-txabola,
ta mendi-zeaf
su-gurdi beltza
ke ta gaña dariola;



etxe pila bat
alkafen gainka
eleiz nagusi-ondoan
umeak egon
oi diran eran
bere amaren alboan;

nun-nai jauregi
eta tximini
luzedun ola lantsuak
ta tximiniok
baño gorago
gure eleiz zañen buruak;

t'efiok zaintzen
artzayak bere
artaldetxoan bezela,
mendi sendoak
beren tontoñaz
ortzea jotzen dutela.

Jauregi'tar Kodolbika.





Zenbat'irauten duten Aita Santuak.

Benedikto XVak, agindu zuan Elizan 7 urte 4 ilabete ta 18 egunez. San Pedro il zanetik 67'en urtetik, 1.922 arte, 1.855 urtez 265 Aita Santuak izan dira eta guztiok banaz beste agindu dute 7 urtez.

Pio IX'ak 32 urtez, ta Leon XIII'ak 26 urtez agindu zuten.

Nola zabaltzen diran katolikoak Australian.

Orain 100 urte Elizak etzeukan inda'rik Australian.

Apaiz bat bakafa zegoan, baño Elizik bat ere ez.

Orain Australiak, badu Aita Santuaren Ordezkoa.

Australiak eta Nueva Zelanda'k dituzte 1.200,000 katoliko, 9 arzobispo eta 19 obispo edo Gotzai. 2.200 Eliza idiki dira ordutik. 1.500 apaiz ba-dira ta 1.600 ikastetxe katolikoena.

¡ARIGARIA!

Emeretzi eunurte badira Jesukristok bere odola gurutze lotsagafi batian ixuri zuala, ta ala ere:

Mundu guztian dira 300 miloi katoliko. — 1.000 miloi Fedegabeak.

Asia'n sortu zuan Jesukristo'k bere erlijioa. An ba-dira 5 miloi ta erdi katoliko—700 miloi fedegabeak.

Afrika da ainbeste Santuen jayotefia ta ala ere miloi erdi bat katoliko—150 miloi fedegabeak dira.

China'n 2 miloi katoliko ta — 400 miloi fedegabeak dira.

Japon'en 70.000 katoliko ta — 6.300,000 fedegabeak.

India'n 300 miloi fedegabeak dira.

Euskera

Euskaltzaindiaren lan eta Agiriak

Onela deitzen da euskera zaitu, edertu ta goratzeko ja'iririk dagon Bartzaren aldizkingi edo e'febista. Giza sail langile gogof ofen lan guziaren be'fia izan nai duanak, beaf du aldizkingi ori artu. Urtean iru aldiz argitaratzen da. Urteko saria 6 ptza. Eusko-ikaskuntzaren bazkideentzat eta 10 besteen-zat.

Eskatu Donosti'n San Ignazio'ren liburutegian, Garibai, 28, edo Bilbao'n, Ribera, 18'an.

Ja'ra'itoko zaio